



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
CEIP GORONDAGANE HLHI

Ikastetxearen kodea: 014486
Data: 2023(e)ko urtarrilaren 11(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Gorondagane Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea Sondika herrian dago. Txorierrin kokaturik, Loiu eta Sondikako familiek, erreferentea den hezkuntza publikora seme-alabak ekartzen dituzte. Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu eta Loiuarekin bat Txorierriko mankomunitatea osatzen da.

Gorondagane eskola 1984-85 ikasturtean sortu zen eta D ereduko, 2 lerroko HH eta LHko eskola da. Eskola dagoen herria nahiko erdalduna dela esan behar da. Azken urteotan, euskaldunen portzentajea %2,17 igo da eta, 2014. urtean, %39,15ra heldu zen. Zentroan euskararen erabilera ertaina da. Indize hori igotzea gure helburu nagusienetariko bat izango da.

Ikasleriaren familiek gehienbat gazteleraz hitz egiten dute, baina azken urteotan familia euskaldunen kopurua gorantz doa. Normaltasunez, kultura eta sozio-ekonomiko errealitate ezberdinak elkarrekin daude, familia tipologia ezberdinak izanez. Diagnosi frogetan emandako datuen arabera, gure ISECa erdi-altua mailakoa da.

Familiekin ditugun harremanak oso estuak dira. Kurtso hasieran egiten diren bileretan, partaidetza kopurua %80ekoa baino altuagoa izaten da.

Bestetik, IGEko ordezkariekin dauden harremanak oso ondo baloratzen dira: orduz kanpoko ekintzen ardura dute, hainbat ekintzetan parte hartuz,...

Sondikako udalarekin, zerbitzu sozialekin, Txorierriko mankomunitatearekin eta berritzegunearekin, bereziki, harremanak daude eta hezkuntza praktikarekin zerikusia duten beste bilera eta foroetan ere parte hartzen da.

Interneten zintzilikaturik dago gure WEB orria; www.gorondagane.eus; bertan eskolako informazio osoa biltzen da eta, bere funtzioa, eskola eta gizarte osoari zabaltzea da.

Curiculumean inguruneak duen garrantzia indartzeko eskolak zeharkako jarduerak antolatzen ditu: ingurugiro gunetarako bisitak, egonaldiak, birziklapena, kontsumoa murrizten, ...

Aniztasuna eta integrazioa lantzen da ikasleen ezaugarri pertsonalak zein gizartekoak kontuan harturik.

Hezkidetza eta bizikidetza eguneroko lanketan sartuta daude: errespetuan, hizkuntzan, espazioetan, jantokian, jolastean ...

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Eskola Eusko Jaurlaritzak bidalitako gailuez hornituta dago, hau da: Haur Hezkuntzan proiektore eta arbel digitalak dituzte eta hauek Internetera eta mahai ordenagailu batera konektatuta daude.

Lehen Hezkuntzan aldiz, proiektoreak pantaila interaktiboen ordeztatu dira soinu eta irudi kalitatea hobetuz. Pantaila guztiak wifirako sarbidea daukate eta mahai ordenagailu batera konektatuta daude. Horrez gain, hirugarren zikloan Eusko Jaurlaritzak bidalitako Chromebookak dituzte eta hauek bigarren ziklokoekin partekatzen dituzte, modu honetan bigarren zikloko ikasleak digitalizazioaren lehen urratsak ematea ahalbidetzen da.

Gailu hauek erabiltzen dituzten ikasle guztiak norbanako helbide elektronikoa daukate, eta eskolako familia guztiak; irakasle zein eskolako Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa daukate eskolako dominupean.

Eskolak webgunea dauka familiei eta nahi duenari informazioa helarazteko, gainera, familiek bereziki badaukate eremu pribatu bat informazio pribatua eta orokorra jasotzeko.

Eskolak dauzkan gailu digital guztiak CAU izeneko zerbitzu tekniko baten babesa dauka, inolako gatazkarik izanez gero zerbitzu hau arduratzen da mantenuaz.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Proiektu honetan parte hartzeak eskolari digitalizazioan aurrera pausua ematea suposatzen du, irakasle guztiok ildo berdinetik jarraitzeko eta gutxiengoko ezagutzak izatea bermatzen du.

Proiektu honi esker irakasleek digitalizazioaren esparruan zer irakatsi behar duten eta ikasleek zer ikasi behar duten definitzeko balio izango digu, aurkeztutako dokumentazio honi esker eta egindako autoebaluazioari esker gure gabeziak, ahuleziak eta hobetzeko aukerak aztertzeko gai izango gara.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Ikastetxeko Proiektu Digitala Digitalizazio Batzordeak sortu du, horretarako Selfie programa erabili izan da zentruko beharrezkoak aztertuz eta tresna praktikoa bihurtuz.

Eskolan badago barne dokumentazioa maila bakoitzean landu behar diren tresnak zehazten duena bi taldeetan sailkatuta, alde batetik derrigorrezko gutxiengoak direnak eta bestetik landu daitezkeen tresnak eta talde aniztasunari egokitzeko prestatuta daudenak, hau da, taldea aurreratua bada proposatu daitezkeen tresnak.

Proiektu honi bi urterik behin berrikusketa egitea komeni da Selfie programaren bidez, batez ere digitalizazioan oso denbora tarte gutxian aldaketa asko ematen direlako eta eguneratuta mantentzea funtsezkoa delako.

Berrikusketak eta proiektuaren jarraipena Digitalizazio Batzordearen esku geratzen da Zuzendaritza taldearekin batera elkarlanean.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu Digitala Hezkuntza Proiektuaren eta Urteko planaren barruan dagoen esparrua da, urtean zehar eskolak lortu nahi dituen helburuak eta ikasleek jaso behar dituzten gaitasunen multzoa delako.

Proiektu Digitalean Urteko Planean zehazten diren ekintzak eta helburuak adierazten dira, hala nola, komunikazioa digitalki egitea eskolako maila guztietan, ikasleek landu behar dituzten tresnak zehaztutako helburuak lortzeko, eta abar.

Bestetik, Hezkuntza Proiektuak eskolak transmititu nahi dituen baloreak, lortu nahi dituen helburuak eta abar biltzen ditu, guzti

hauek digitalizazioarekin lotura handia daukate eta hemendik aurrera tresna digitala beste baliabide gisa izango dugu.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Errealitatearen azterketa egiteko eskolan SELFIE autoebaluaziorako tresna erabili dugu, bertatik ateratako emaitzak aztertuz ondorengoa ondorioztatu daiteke:

- Gure eskolako familien egoera ekonomikoak ez du oztopatzen ikasleen digitalizazio prozesurako.
- Bigarren ziklotik beherako mailetan gailu digital urritasuna nabaritzen da, ikasleek ez daukate digitalizaziora pausua emateko aukera handirik. Gailu digitalak falta dira.
- Eskolako wifia eta konektibitatea ona da.
- Eskolak digitalizaziorako espazioa sustatzen du, gune fisikoak badaude.
- Irakasleek digitalizaziorako denbora gutxi daukate.
- Irakaslegoak kompetentzia digital handiagoa beharko luke.
- Ikasleek kompetentzia digital nahikoa daukate ildo honetan lanean jarraitzeko.
-

Irakaslegoaren aldetik ondorengoa ondorioztatu daiteke:

- Irakaslegoaren erdiak baino gehiagok ez dute ziurtasunik sentitzen digitalki material didaktikoa sortzeko eta eskolak digitalki emateko, baina komunikaziorako bai familiekin zein irakasleen artean.
- Irakaslegoaren erdiak denboraren erdia digitalki lan egiten ematen du.

Ikaslegoaren aldetik:

- Denboraren erdia baino gutxiago ematen dute digitalki lan egiten.
- Erdiak baino gutxiagok etxeko lanak digitalki egiten ditu.
- Erdiak baino gehiagok gailu digitalak erabiltzen ditu etxean beraien aisialdirako.
- Erdiak aitortzen du eskolan oso gutxitan erabiltzen dituztela gailu digitalak.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikasleentzat gailu digitalak falta dira.

Irakasleak ez du gailu digitalak erabiltzeko denbora aurkitzen.

Digitalizazioarekiko mesfidantza, paper fisikotik digitalera pasatzeko beldurrak.

Modu digitalean landutako edukiak ikasleentzat hain eraginkorrak ez izatearen beldurrak.

Digitalizazio prozesu honetan bakarrik sentitzearen beldurra (Eta gaizki egiten badut? Ez dakit ondo egiteko gai izango naizen...)

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Gailuak erabiltzea helburu bihurtzea eta ez bidea.

Digitalizazio prozesu honetan gehiegi sakondu nahi izatea eta oinarrizko beste zeregin batzuk bidean galtzea.

Ikasleek digitalizazioa aisialdi gisa hartzea eta eskuratu beharreko beste gaitasun batzuk bidean galtzea.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Irakasleak gero eta prestatuago dago.

Ikasleak natibo digitalak dira.

Eskolako konektibitatea ona da.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Ikaslearen gaitasun ekonomikoak etxean gailu digitalak izatea ahalbidetzen du.

Jaurlaritzak digitalizatorako prestutasun handia dauka.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikasleak natibo digitalak dira, beraz, oso txikitatik ohituta daude tresna digitalak erabiltzera eta ikasteko prozesua oso arina da, gainera oso tresna motibagarria da eta asko gustatzen zaie.

Irakasleak ere gero eta prestatuagoak daude eta hobeto heltzen diete IKT tresnei, gaitasun handiagoa erakusten dute tresna berrien aurrean.

Bestetik eskolak konektibitate ona dauka, beraz, gailuak konektatzerakoan ondo funtzionatzen dute eta eskolak aurrera eramateko ez da zailtasunik egoten.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Hirugarren zikloan Eusko Jaurlaritzak bidalitako gailuak dituzte, baina Haur Hezkuntzatik hasita eta Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora arte ikasleek ez daukate norbanako gailuak izateko aukerarik, badago informatika gela bat zenbait mahai ordenagailu elkarbanatzeko, baina oso zaila izaten da eskolak aurrera eramatea ordenagailuak oso zaharrak direlako eta askotan trabatzen direlako.

Egoera honen aurrean eskolak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko Chromebookak bigarren zikloko ikasleekin elkarbanatzea erabaki du, baina neurri egokiena maila guztietako ikasle bakoitzak berea izatea izango litzateke.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Hirugarren zikloko gailuak bigarren zikloko ikasleekin partekatzen dituzte, lehenengo ziklokoko ikasleek astean behin informatika gela erabiltzen dute digitalizazioko lehen urratsak emateko.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan hartu beharko litzuketuen neurriak irakaslegoaren formakuntzara eta gailu gehiagoen bidalketara zuzenduta egon beharko litzateke.

Eskolan beharrezkoa ikusten da formakuntza praktikoko gehiago jasotzea eta bestetik, ikasleentzako gailu berri gehiago jasotzea.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Aurkeztutako digitalizazio tresnak ebaluatzea.

Deskriptorea	Epea	
LG 3.4 Inplementazio-planaren emaitzak, kalitatea eta inpaktua berrikusten dira	2024/09/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.4 A1 Ikastetxeak ebaluazio-tresnak ditu, kanpokoak eta barnekoak, teknologia digitalen erabilerar	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Hiruhilabete bukaeran ebaluazio egin.	Errubrikak	Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Detektatua

Helburua

Digitalizazio batzordea zehaztea.

Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2023/10/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio kideak izendatu	Klaustrokideak	Zuzendaritza taldea	2023/06/21	Prozesuan (%80-99)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Etengabeko formakuntza saioak egitea.

Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A4 Egutegian formakuntza saioak ere finkatuta daude.	Bai/Ez	BAI
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Formakuntza eskaini landu beharreko tresnen erabilpena irakasteko.	Tresna digitalak	Digitalizazio batzordea	2023/06/21	Prozesuan (%60-79)

Helburua

Diziplinarteko lana sustatzea.

Deskriptorea	Epea	
II 2.3 Ikasleentzat rol berriak aurreikusten dira	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.3 A2 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Tresna digitalen erabilpenak hainbat arloetako proiektuetan erabiltzea.	Baliabide digitalak	Irakasleak	2024/06/21	Detektatua

Helburua

Elkarlana eta taldelana sustatzea.

Deskriptorea	Epea	
II 2.7 Elkarlana eta taldelana espero dira	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.7 A1 Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu dira elkarlana eta taldelana sustatzeko.	Bai/Ez	BAI
II 2.7 A2 Unitate didaktiko eta programazioetan taldelana sustatzen da.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Unitate didaktikoetan elkarlana eta taldelana sustatuko duten proposamenak garatzea.	Baliabide digitalak	Ikasleak eta irakasleak	2024/06/21	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Informazioa eta formazioa hezkuntza komunitatearen eskura jartzea.

Deskriptorea	Epea	
GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.2 A1 Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digital	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Infografiak sortu eta webgunean jarri.	Infografiak	Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ikasleek beraien lana ebaluatzen ikastea.

Deskriptorea

EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.

Epea

2024/06/21

Adierazlea

Mota

Helmuga

EJ 1.3 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek

Bai/Ez

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Autozuzentzaileak diren ariketak sustatu ikasleek berehalako feedbacka jasotzeko.	Joku eta ariketa interaktiboak	Irakaslegoa	2024/06/21	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Curriculumarekin lotuta dauden atazak ikasleekin lantzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % 50 ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortze	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Orain arte liburuetako ariketa analogikoak digitalak bihurtzea.	Aplikazio digitalak	Irakaslegoa	2024/06/21	Prozesuan (%40-59)

Helburua

Arlo guztietan kompetentzia digitala lantzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasgai ezberdinetan eduki digitalekin lan egitea.	Aplikazio digitalak	Irakaslegoa	2024/06/21	Prozesuan (%40-59)

Helburua

Ikasleak baliabide digital ezberdinen erabileran trebatzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 1.5 Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.5 A1 Gutxienez, departamentuen/mailen/zikloen % ... k baliabide digital irekiak dituzten webgune	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
----------	-------------	-------------	------	--------

Jarduerak aurrera eramateko baliabide digital ezberdinak ezagutzea eta erabiltzen jakitea	Hezkuntza baliabide digitalak	Irakasletoa	2024/06/21	Prozesuan (%40-59)
---	-------------------------------	-------------	------------	--------------------

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Ikasleek talde lanak modu interaktiboan egitea.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.3 Ikasleak networking efikaz batean inplikatzeko dira	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.3 A1 Ikasleak komunitateetan parte hartzen dute.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleek talde lanak taldeka partekatzen dute eta norberak egindakoa besteen lanekin elkartzen du.	Googleek eskaintzen dituen tresnak. Workspace.	Irakasleak	2024/06/21	Prozesuan (%80-99)

Helburua

Familiekin elkarlanean aritzea.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Familiekin informazioa elka partekatzea.	Googleek eskaintzen dituen tresnak: Calendar, gmail...	Irakasleak eta familiak	2024/06/21	Prozesuan (%80-99)

AZ Azpiegiturak

Helburua

Familia eta ikasleei Chromebooken erabileraren praktika onak helaraztea.

Deskriptorea

AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita

Epea

2024/06/21

Adierazlea

AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu

Mota

Bai/Ez

Helmuga

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Tutoretza saioetan gailuen erabilera egokia landu eta infografiak sortu.	Material analogikoa eta digitala.	Tutoreak	2024/06/21	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Eskolako proiektuak modu digitalean integratzea.

Deskriptorea

Arloak beraien artean integratzea proiektu komunak sortzeko.

Epea

2024/06/21

Adierazlea

Arloetan ikasitako ezagutzak proiektu komunetara zabaltzea.

Mota

Bai/Ez

Helmuga

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Hizkuntzetan ikasitako trebetasunak eta gailu digitalak erabiliz ortuko proiektua ezagutzera ematea.	Gailu digitalak	Irakasleak	2024/06/21	Detektatua



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Aurkeztutako digitalizazio tresnak ebaluatzea.	Hiruhilabetearen bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
LG	Digitalizazio batzordea zehaztea.	Proiektua hasi baino lehen	Bilera orokorra	Zuzendaritza taldeak	
II	Etengabeko formakuntza saioak egitea.	Ikasturte bukaeran	Bilera orokorra	Zuzendaritza taldeak	
II	Diziplinarteko lana sustatzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
II	Elkarlana eta taldelana sustatzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
GP	Informazioa eta formazioa hezkuntza komunitatearen eskura jartzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
EJ	Ikasleek beraien lana ebaluatzen ikastea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
EC	Curriculumarekin lotuta dauden atazak ikasleekin lantzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
EC	Arlo guztietan kompetentzia digitala lantzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
EC	Ikasleak baliabide digital ezberdinen erabileran trebatzea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	
EN	Ikasleek taide lanak modu interaktiboan egitea.	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran	Ebaluazio bileran	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak	

EN	Familiekin elkarlanean aritzea.	Ikasturte bukaeran	Bilera orokorrean	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak		
AZ	Familia eta ikasleei Chromebooken erabileraren praktika onak helaraztea.	Proiektuarekin hasi baino lehen	Bilera orokorra	Zuzendaritza taldeak eta Digitalizazio batzordeak		
IB	Eskolako proiektuak modu digitalean integratzea.	Ikasturte bukaeran	Bilera orokorra	Zuzendaritza taldeak		